

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



**Oiartzun.
Taupadak**
**Ander Izagirre eta
beste batzuen
artean**

OIARTZUNGO UDALA
168 orrialde

Oiartzun: iragana eta orainaldia

Euskal Herriko bihotz berdea, iragana orainaldian txertatzen jakin duen lurraldea. Hori da Oiartzun, Ander Izagirreren hitzetan. Herriko Udalak plazaratu duen *Oiartzun. Taupadak* izeneko liburuan hango tontor eta txokoen aztarna historiko zaharrenak kontuan edukirik gaur egunerainoko bidea egin dute, idatziz. Bide bera egin dute Gema Arrugaeta, Javier Juanes, Jorge Moreno, Santiago Yaniz eta Oskar Zapirain argazkilariek Oiartzungo irudi ikusgarriak lortzeko. Aiako Harriari bisita eginez Oiartzunera doanak, 300 miloi urte zeharka ditzake —historia geologikoan—, edo 13.000 urte —gizakion historian—. Nahi duenak XXI. mendeari atxikitako gizarte batek bizi duen eraldaketa industrialera beha dezake liburu honi esker. **I**



Arteleku.
2006 / Memoria
Batzuen artean
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
128 orrialde

Artelekuk iaz emandako aurrerapen guztien azalpena

Zinea, *copyleft*, feminismoa, soinu sorkuntza esperimental, pentsamendu garaikidea eta informazio bide alternatiboak lantzen ditu, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin martxan dagoen *Artelekuk*. Gai horietan iaz eman zituzten aurrerapenak azaltzen ditu *2006 / Memoria* izenburuko liburuxkak: Dokumentazio Zentroaren helburuak eta eginahalak, lau hilabetetik behin kaleratzen duten arte eta kultura garaikideari eskaririk *Zehar* aldizkariaren nondik norakoak, www.arteleku.net gunean agertutako jarduerak eta kultura garaikide kritikoko proiektuak bultzatzeko beste erakunde batzuekin elkarlanean abian jarritako ekimenak —www.cartografiasarabescontemporaneas.com eta www.desacuerdos.org— besteak beste. **I**

Jaramonik egiten ez zioten gizona

Alvaro Rabelliren *Odisea* komikia Idoia Beratarbideren marrazkiz lagunduta kaleratu du Gero argitaletxeak. Esperientzia ikaragarria bizitzea egokitu zaio protagonistari, bizirik irten den bakarra izan da, eta kontatu nahi izan duenean inork ez dio kasurik egin. Autobusean zihoala, istripua gertatu da. Beste bidaiari guztiak eta gidaria hil egin dira, baina Fernandok handik alde egiteko aukera izan du. Suhiltzaileak datoz. Haiei azalpenen bat emateko asmoz gerturatu da, baina ez diote kasu izpirik egiten. Norbaiti kontatu beharra sentitzen du ordea, eta kale ilunetara jo du gizonak. Gogor ari du euria, gaua da eta jende gutxi dabil kalean. Zabor biltzaileak eta eskale bat ikusi ditu. Saiatzen da haiei gertatutakoa kontatzen, baina alfer-alferrik izango da. **I**



Odisea
**Alvaro Rabelli.
Idoia Beratarbide**
GERO
24 orrialde
12 euro

Mamu eta zonzien etxea

Asturiasko oihan trinkoak, itsaso zakarra eta etxe hutsen misterioa gustuko ditu Jesús Díez de Palmak. Horietan aurkitzen omen du bere irudimenak behar duena *Indianoaren etxea* bezalako istorioak idazteko. Hamar urte baino zaharragoak diren neska-mutikoei zuzendua dago, eta batere gogorik gabe Asturiasko herri batean dituen izeba-osabengana bi hilabate pasatzerara doan mutiko bati gertatutakoa kontatzen du. Herri ziztrin horretan aspertuko delakoan dago, baina ez da hala izango. Hasteko, bere adin bere-tsu duen neskato bat ezagutuko du, eta lagun egingo dira. Haren bitartez, madarikatua dagoela dioten etxe baten berri izango du. Hara ez gerturatzeko agindu diete helduek, baina besteek esandakoa ez betetzea baino gauza kilikagarriagorik ez dagoenez, joan egingo dira. Eta hantxe aurkituko dituzte beren premia duten mamu batzuk. **I**



**Indianoaren
etxea**
**Jesús Díez de
Palma**
IBAIZABAL
160 orrialde
9,80 euro



Euskaldun heretikoak, magia eta sorginak
Rafael Castellano

GAIAK
 296 orrialde
 21 euro

Rafael Castellano, euskaldun heterodoxoak

Hiru ataletan banaturik dago Rafael Castellano, Luis Peña Longaren marrazkiekin eta J. Uriarteren argazkiekin kaleratu duen *Euskaldun heretikoak, magia eta sorginak* liburua. Lehen zatian Julian Vinson euskalariak Ipar Euskal Herrian jasotako elezaharrak —*Ama mitoa, Itzalik gabeko apaiza* edota *Tartaloen kondairak*, besteak beste— berreskuratu ditu, haien protagonistei nobela batean bizia emateko. Bigarrenean edozein euskal bazterretan aurkitutako istorioak ditu egileak gogoetagai; *Bozateko agotak: atxikita dankan kondaira zehaztea beharrezkoa duen aspaldiko apartheida*, edo *Komuna herotiko bat Erdi Aroko Durangon* bezalakoak. Hirugarren atala berriz, *Egun pare bat Gaskoniako Bigorraldean* da. **I**

na herotiko bat Erdi Aroko Durangon bezalakoak. Hirugarren atala berriz, Egun pare bat Gaskoniako Bigorraldean da. I

Maiatzen 44. zenbakia egile ugariren testuekin

Hogeita bost urte betetzear ditu *Maiatz* aldizkariak, eta hori ospatzeko ale guztiz berezia kaleratu nahi du 45. zenbakian, irakurleen zein edozein idazleen lanekin. Parte hartu nahi duenak maiatz@caramail.com helbidera zuzentzea besterik ez du bere sorkuntza Bitartean, 44. alea eskaintzen digute *Maiatz*ekoek, egile ugarik eginiko olerki andanarekin eta Itxaro Bordak, Txomin Peillenek, Lucien Etchezaharretak, Juankar Lopez-Mugertzak eta beste idazle askok eskaintako kolaborazio eta itzulpen interesgarriekin. **I**

Maiatz

Batzuen artean

MAIATZ
 72 orrialde / 7 euro



AITZIBER ETXEBERRIA

«Nobelan, Donostia hiria pertsonaia nagusi bihurtzen da»

31 baioneta-ren atarikoak azaltzerik bai?

Nire lan hau nobela historikoa da, 1813an gertatua, Donostian. Garai hura, nahiko nahasia izan zen. Batetik, Espainiako Independentzia gerra eta euskal gizartearen arazoak zeuden; bestetik, urte batzuk lehenago, 1793an, Espainia eta Frantziaren arteko gerra bat ere egon zen, Konbentzioko gerra, eta gizartea, egia esan, nahiko egoera zailan zegoen. Orduan nik, doi-doi, gerra egoera horretan kokatu dut nobela.

Zeintzuk hautatu dituzu protagonista nagusi?

Napoleonen soldadu bat Egipton, Portugalen, Espainian... kanpaina askotan parte hartua eta orain Donostian dagoena. Gerra bizipen horiekin guztiekin nahiko erreta dagoen soldadua da. Izaera bortitza dauka, menperatzailea da, badaki zer botere daukan herriarengan eta, gainera, gustatuko litzaiokie bere ingurukoak jakitea berak botere hori daukela Baina arazo bat du: ikusmena galtzen ari da, eta horren aurrean, sendagile militarrengarrena jo beharrean, arazoa ezkutuan eramatea eta petrikilo batengana joatea erabakitzen du, Beatrizengana.

Nor dugu Beatriz?

Uliako emakume bat, alarguna, alaba bat duena. Oso iragan mingarria du, eta saiatu da iragan hori ahazten. Eta orduan soldadu frantziarra agertzen zaio. Hark badaki petrikiloa izan zela eta Inkisizioarekin arazoak izan zituela. Orduan Beatrizek berebiziko sustoa hartuko du. Alaba arriskuan jarri nahi ez duenez, arazoari aurre egitea erabakiko du. Horietaz gain, nire ustez, nobelan, Donostia hiria bera pertsonaia nagusi bihurtzen da.



egileari galdezka

2007ko Donostia Opera Prima sariaren irabazlea

Aurtengo Donostia Opera Prima saria eskuratu zuen Aitziber Etxeberriak (*Zarautz, 1973*) *31 baioneta* eleberriarekin. Haatik, ez da hau sari hori jasotzen duen aurreneko aldia, 2003. urtean gauza bera lortu baitzuen *Tango urdina* nobelarekin. *31 baionetak* berriz, XIX. mendeko hasierara garamatza, Donostia frantsesten menpe bost urtez egon ondoren, bertakoen ustez salbatzaileak ziren tropa anglo-portugaldarrak sartu zireneko. Lapurtu, hil eta bortxatzeaz gain, hiria ia erabat kiskali zuten 1813ko abuztuaren 31 inguruko garaian. Gertara historiko horretara gerturatzeko, ordea, Konbentzioko Gerra garaian bere senarrak izan zituen istiluentatik Inkisizioaren eskuetatik pasea den emakume bat aukeratu du protagonista Aitziber Etxeberriak. Petrikiloa da,



31 baioneta

Aitziber Etxeberria

EREIN
 252 orrialde
 19 euro

belarrekin enplastoak eginez jendea sendatzen saiatzen dena, eta duen alaba bakarrarekin bizi da Uliako baserrian, nahiko lasai, soldadu frantses batek mehatxuka begitan duen gaixotasun larria sendatzeko eskatzen dion arte. Geroztik emakumeari bizimodua erabat aldatuko zaio. Berak ez dauka bestea sendatzeko modurik, eta hori egiten ez badu badaki alaba eta bera arriskuan direla... **■**